

**KULTURA**

*Liburuak irakurri, musika entzun, aldizkariak, argazki zaharrak, aintzinako planoak, ikerketa lanak gustoko dituzu? Udalak, **Joxe Miel Barandiaran Liburutegia**ren bidez eta **udal artxiboaren** bidez honakoak eskaintzen dizkizu:*

1. Informazio zabala: dokumentuak bilatu, kontsulta espezializatuak egin zein sareko dokumentu berrien informazioa eskuratzeko.
2. Dokumentuak eskuratzeko aukera: aldizkari eta egunkariak kontsultatu, liburuak, Cdak, Dvdak etxera eroateko aukera eskaini bai maileguan, bai beste liburutegien arteko maileguak, lineako sarbidea bildumako dokumentu digitalera (liburu elektronikoak)
3. Internetera sarbidea ordenagailuen bitartez zein wifi bidez, ikertu, aurkitu eta behar dozun edukietara sartu ahal izateko
4. Umeen irakurzaletasuna bultzatzeko zein helduentzako ekimenak ere Liburutegian bertan: irakurleen txokoa, liburu aurkezpenak...

*Azken nobedadeak barik, aintzinako dokumentu zaharren maitale ahal zara? Kasu horretan ere, eskaintza zabala daukazu **udal artxiboan**:*

5. Dokumentuen kontsultak egin: dokumentu historikoak, akta-liburuak...
6. Planoen eskaerak egin
7. Argazki zaharrak kontsultatu eta argazki eskabideak egin.

ORDUTEGIA	HARREMANETARAKO DATUAK
<b>Liburutegia neguan:</b> Astelehenetik barikura: 9:30-14:00 eta 16:00-20:00 Zapatuetan: 9:30-13:00  <b>Liburutegia udan:</b> Astelehenetik barikura: 9:30-14:30  <b>Udal artxiboa:</b> Eguazten arratsaldetan: 17:00-19:30	<b>Liburutegia:</b> e-posta: <a href="mailto:liburutegia@bermeo.eus">liburutegia@bermeo.eus</a> Tel: 946179151 / Fax: 946880367 <a href="#">Weba</a>  <b>Artxiboa:</b> e-posta: <a href="mailto:artxiboa@bermeo.eus">artxiboa@bermeo.eus</a> Tel: 946179151 / 946179153  <b>Kokapena</b> <a href="#">Lamera z.g 48370 Bermeo (Liburutegia)</a> <a href="#">Zubiaur tar kepa, 26-28 48370 Bermeo (Artxiboa)</a>

*Herriko ekimenetan, jaietan parte hartu nahi dozu? Elkarte bat egin nahiko zeunke? Zinea, dantza, antzerkia gustoko dozuz? Udalak **Gizarte eta Kultura Etxe** bat ez ezik, mota honetako ekimen guztiak kudeatzen dituen lan taldea dauka honakoak eskaintzeko:*

- 1.- Herritar guztiei zuzendutako kultur ekintzen programa hilero
- 2.- Jaietako ekintzak antolatzen edota gauzatzen laguntzen dogu
- 3.- Gizarte eta Kultura etxearen erabilera bultzatzen dogu
- 4.- Herriko kultur taldeen ekintzak babesten doguz
- 5.- Ikastaroak antolatzen edota gauzatzen laguntzen dogu
- 6.- Kultur ekintzen koordinazioa bultzatzen dogu
- 7.- Kultur ekintzen komunikazioa lantzen dogu

ORDUTEGIA	HARREMANETARAKO DATUAK
<b>Gizarte eta Kultura Etxea</b> <b>Neguan:</b> Astelehenetik barikura: 9:00-14:00 eta 16:00-21:45 Zapatuetan: 10:00-13:15 eta 16:00-20:15  <b>Udan:</b> Astelehenetik barikura: 9:00-14:00 eta 17:00-21:45 <b>Zapatuak itxita</b>	e-posta: <a href="mailto:kultura@bermeo.eus">kultura@bermeo.eus</a> Tel.: 94 617 91 55 / 57 Faxes: 94 688 15 18  <b>Kokapena</b> Helbidea: <a href="#">Irakaskintza 14-16 48370 Bermeo</a>

***Musika** ikasi nahi dozu? Instrumenturen bat jo nahiko zeunke? Udalak, Bermeoko Musika Eskolaren bitartez duen eskaintzaz jabetu nahi?*



- 1.- Informazio zuzena eta argia aurkituko dozu eskaintzen dugun musika hezkuntzari buruz.
- 2.- Herritarrei musika egiteko eta jorrazteko bidea ematen jake, musika instrumentu desberdinen bitartez.
- 3.- Musika egiteko talde jardueran parte hartzeko aukera eskaintzen da.
- 4.- Musika estilo desberdineko kontzertuak antolatu eta eskaintzen dira herriko kultur agenda elikatuaz.

<b>ORDUTEGIA</b>	<b>HARREMANETARAKO DATUAK</b>
<b>Neguan:</b> Astelehenetik eguenera: 12:15-13:30 eta 16:30-20:00 Barikuetan: 11:00-14:00  <b>Udan:</b> Astelehenetik barikura: 11:00-14:00 <b>Abuztuan itxita</b>	e-posta: <a href="mailto:musikaeskola@bermeo.eus">musikaeskola@bermeo.eus</a> Tel.: 94 617 91 56 <a href="http://bermeokomusikaeskola.blogspot.com.es">Weba:</a> bermeokomusikaeskola.blogspot.com.es  <b>Kokapena</b> Irakaskintza, z/g 48370 Bermeo

